ZUIN
INFORMAZIO AGENDA
LAUDIOKO UDALA
2020

11/2

INFO-AGENDA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO
2020



# HAZra joateko, hitzordua eskatu

## Acude al SAC con cita previa










## ZERBITZUAK *SERVICIOS*

### Herritarrentzako Arreta Zerbitzua

Azarotik aurrera, Herritarrentzako Arreta Zerbitzura (HAZ) joateko, aurrez hitzordua eskatu behar da, 944034810 telefono zenbakiera deituz. Horrez gain, gogorarazten dizuegu administrazio-kudeaketak ere egin daitezkeela udal instalazioetara joan beharrik gabe.

*Nola?*

- **010 edo 944034800 (Laudiotik kanpo deitzen bada) telefonoetara deituz**
- **Mezu elektroniko bat bidaliz laudio@laudio.eus helbidera**
- **www.laudio.eus egoitza elektronikoaren bidez**

### Servicio de Atención Ciudadana

Desde noviembre y hasta nuevo aviso, para poder acudir de manera presencial al Servicio de Atención Ciudadana (SAC) se debe solicitar cita previa, llamando al 944034810. Asimismo, recordamos que se pueden realizar gestiones administrativas sin necesidad de acudir a las instalaciones municipales.

*¿Cómo?*

- Llamando al 010 o 944034800 (si llamas desde fuera de Laudio)
- Mandando un correo a laudio@laudio.eus
- Mediante registro electrónico en www.laudio.eus



## ORDENANTZAK ORDENANZAS

PARTE HARTU

### Igogailuak etxebizitzeetan izateko baldintzak

Bizitegi izaerako eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal Ordenantza Aldatzeko ordenantzaren hasierako onarpenan alegazioak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 25era arte egongo da zabalik. Bereziki, ordenantza honen 6.1 eta 12. artikuluen aldaketari hasierako onespena emateari buruz doa.

Aldi hori amaitu ondoren, osoko bilkurak edozein alegazio, erreklamazio, iradokizun edo ekarpen ebatziko du, hala badagokio, testuari behin betiko onespena emateko eta, ondoren, ALHAOn osorik argitaratzeko.

**Ordenantza guztiak:**
**http://www.laudio.eus/eu/herritarrak/parte-hartu**

### Condiciones para la instalación de ascensores

Las alegaciones referentes a la aprobación inicial de la Modificación de la Ordenanza municipal reguladora de las condiciones para la instalación de ascensores en edificaciones existentes de carácter residencial se podrán enviar hasta el 25 de noviembre de 2020. En concreto, la modificación de los artículos 6.1 y 12.

Finalizado dicho período, serán resueltas por Pleno cualquier tipo de alegación, reclamación, sugerencia o aportación al texto con el fin de proceder, en su caso, a la aprobación definitiva del mismo y posterior publicación íntegra en el BOTHA.

**Todas las ordenanzas:**
**http://www.laudio.eus/es/ciudadania/participa**

Asesoria Aiala
Fiscal - Contable - Laboral - Seguros
DECLARACIONES DE RENTA - CONTRATOS
HERENCIAS - NÓMINAS Y SEGUROS SOCIALES
ASESORAMIENTO A EMPRESAS Y AUTÓNOMOS

## Laudiotik Plazara: Topaketa Feministen Ziklo Birtuala

***"COVID-19ak gure bizitza aldatu du, baina genero-indarkeriak bere horretan dirau. Nola eragin du emakumeen aurkako indarkerian konfinamendu aldia? Gizonek indarkeriaren aurka gehiago parte hartzeko erronkak eta gakoak"***

Azaroaren 17an, asteartean, Miguel Lorentek, auzitegi eta medikuntza legalean espezializatuta, baita Genero Indarkeriaren aurkako Gobernuaren ordezkari ohia ere, "INDARKERIA MATXISTA: COVID-19AREN BESTE ERREALITATEA" hitzaldia eskainiko du. Parte hartzeko sartu #LAIAplazara web orrian 19:00etatik aurrera.

***"El COVID-19 ha transformado nuestras vidas, pero la violencia de género permanece. ¿Cómo ha incidido el confinamiento en la violencia contra las mujeres? Retos y claves para una mayor implicación de los hombres en contra de la violencia"***

El 17 de noviembre, Miguel Lorente, especialista en medicina legal y forense, y ex-delegado del Gobierno para la Violencia de Género, ofrecerá una charla bajo el título "VIOLENCIA MACHISTA: LA OTRA REALIDAD DEL COVID-19". Para participar entra en la página web de #LAIAplazara a partir de las 19:00 horas.



## Partekatu zure puntu lila!

Azaroaren 25ean Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna ospatzen da. Hori dela eta, sare sozialetan puntu lilarekin (aldizkarian atxikituta) zure argazkia partekatzera animatzen zaitugu #25NLaudio hashtag erabiliz eta @laudiokoudala-rekin.

## ¡Comparte tu punto lila!

El 25 de noviembre se celebra el Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres. Por este motivo, te animamos a compartir tu foto con el punto lila (adjunto en la revista) a través de las redes sociales usando el hashtag #25NLaudio y etiquetando a @laudiokoudala.

## LAIAEskola Autodefentsa Feminista

Azaroaren 22an Autodefentsa Feministari buruzko tailer intentsiboa izango dugu Laudion, Maite Monroyren eskutik, fisioterapeuta eta emakumeen aurkakako indarkerian kontra aditua dena.

## LAIAEskola Autodefensa Feminista

El 22 de noviembre tendrá lugar en Llodio un taller intensivo sobre Autodefensa Feminista, con Maitena Monroy, fisioterapeuta y especialista en violencia contra las mujeres, como formadora.

**ORDUA HORA** 10:00-14.00 / 15:00-19:00

**NON DÓNDE** Laudioko Kasinoan Casino de Llodio

**NORENTZAT DIRIGIDO A** 14-30 urteko emakumeak Mujeres de 14-30 años

**HIZKUNTZA IDIOMA** Elebiduna Bilingüe

**NOIZ EMAN BEHAR DUT IZENA PARTE HARTZEKO?**
**¿CÚANDO ME TENGO QUE APUNTAR PARA PARTICIPAR?**
Azaroaren 20 baino lehen Antes del 20 de noviembre

**NON DÓNDE**
> www.laiaeskola.eus
> 944 03 48 50
> berdintasuna@laudio.eus

### ! GOGOAN IZAN RECUERDA

- Garraioa behar baduzu, gutxienez 3 egun lehenago eskatu behar duzu.
- Si precisas transporte, solícitalo con 3 días de antelación.

- Indarrean dagoen COVID-19 araudia betearaziko da: segurtasun distantzia, maskarila eta hidrogela.
- Se seguirá la normativa vigente COVID-19: distancia de seguridad, mascarilla y gel hidroalcohólico.



## Udal Euskaltegia itxita

Euskaltegia kautelaz itxi dela jakinarazten da, zentroan COVID-19ko kasuak agertu ondoren. Instalazioak behin-behineko itxita mantenduko dira. Hala ere, Euskaltegiko eskolak eta jarduerak ez dira geldituko, baina telematikoki edo online eskainiko dira. Horretarako, Udalak beharrezko materiala eman die ikastetxeko irakasleei, eskolak urrutitik egin ahal izateko, ikasleentzako irakaskuntza-berme guztiekin.

## Cerrado el Euskaltegi Municipal

Se informa del cierre del Euskaltegi de manEra cautelar tras detectarse casos de COVID-19 en el centro. La clausura de las instalaciones se prolongará hasta nuevo aviso. Por el momento las clases y la actividad del Euskaltegi se mantienen, pero en la modalidad online. Para ello, el Ayuntamiento ha facilitado a las/os profesoras/es material necesario para llevar a cabo las clases con todas las garantías docentes.

## "Euskara sari ziurra" kanpaina

**Zertan datza?**
Euskararen erabilera sustatzeko Laudioko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresetan eta 77 establezimenduk hartuko dute parte. Azaroaren 20tik abenduaren 3ra arte izango da.

**Sariak?**
Egun horietan, euskaraz aritzeagatik txartel saridun bat emango zaie. Batzuk (5.081 txartel), sari zuzenak izango dira; beste batzuek, (5.515 txartel) zenbaki bat izango dute 30 sari handi izango dituen zozketa batean parte hartzeko.

**Noiz eta non?**
Zozketa abenduaren 4an egingo da, Euskaraldia kanpainaren amaiera-egunean, 11:00etan Hizkuntza Normalizazioa eta Identitatea udal zerbitzuan. Sariak, bai zuzenak bai zozketakoak, azaroaren 20tik urtarrilaren 15era arte jaso beharko dira.

***Eta ez ahaztu benetako sari ziurra... euskara da!***

## Campaña "Euskara sari ziurra"

**¿Qué es?**
Una iniciativa para fomentar el uso del euskera empresas de comercio, hostelería y servicios de Llodio, y en la que participarán 77 establecimientos. Se realizará desde el 20 de noviembre hasta el 3 de diciembre.

**¿Premios?**
Durante estos días, se les entregará un boleto premiado por su dedicación al euskera. Unos (5.081 boletos) serán premios directos; otros (5.515 boletos) contarán con un número para participar en un sorteo de 30 grandes premios.

**¿Cuándo y dónde?**
El sorteo se realizará el 4 de diciembre, fecha de finalización de la campaña Euskaraldia, a las 11:00 horas en el servicio municipal de Normalización Lingüística e Identidad. Los premios se recogeren del 20 de noviembre al 15 de enero.

***Y no olvides el verdadero premio... ¡es el euskera!***

## Euskaraldia ate joka dugu!

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean egingo den ariketa sozial erraldoian parte hartu nahi duzu gure hizkuntza ohiturak aldatzeko?

**Izena emateko epea azaroren 19ra arte. Nola?**

- http://izenematea.euskaraldia.eus/
- Etxeetan jasoko diren eskuorriak beteaz eta herriko ikastetxe ezberdinetan, udaletxean, edota euskaltegietan egongo diren postontzietan.

Bi rol nagusi egongo dira: **ahobiziak** "euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiten dut uneoro" eta **belarriprestak** "nire gaitasunen arabera erabakitzen dut euskaraz noiz eta norekin egin". Aurten ere, entitateekin bat egingo dugu, horreterako, **ARIGUNEAK** (euskaraz lasai aritzeko guneak) sortu dira.

**Informazio gehiago:**
laudio.euskaraldia@ni.eus
areta.euskaraldia@ni.eus
688784629



## Ekonomia Jardueren gaineko zerga

Arabako Foru Aldundiak 2020ko Laudioko landalur eta hirilur Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren errolda onartu du. Zergen ordainketa epea, borondatezko aldian, 2020ko urriaren 16tik abenduaren 16ra arte izango da, biak barne. Helbideratuta dauden erreziboak 2020ko azaroaren 16an kobratuko dira.

## Impuesto sobre bienes e inmuebles

La Diputación Foral de Álava aprueba el padrón contributivo sobre el Impuesto Municipal de Bienes Inmuebles de naturaleza rústica y urbana de 2020. El plazo recaudatorio, en periodo voluntario, es del 16 de octubre al 16 de diciembre, ambos inclusive. Los recibos domiciliados se cobran el 16 de noviembre de 2020.

## Edateko uraren udal zerbitzua

Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketako Zerbitzuak edateko uraren zerbitzua emateagatiko tasari buruzko errolda kontributiboa egin du, 2020ko 3. hiruhileko ekitaldiari dagokiona. Horretarako, borondatezko aldian dirua biltzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2020ko urriaren 15etik 2020ko abenduaren 15era, biak barne. Halaber, helbideratutako ordainagiriak aurtengo irailaren 15ean kobratuko dira.

## Servicio municipal de agua potable

El Servicio de Economía y Gestión Tributaria del Área de Gestión Municipal, ha elaborado el padrón contributivo referente a la tasa por prestación del servicio de agua potable correspondiente al tercer trimestre de 2020. Se ha fijado como plazo de recaudación en período voluntario desde el 15 de octubre de 2020 al 15 de diciembre de 2020, ambos inclusive. El cobro de los recibos domiciliados se hará el 15 de octubre de 2020.



## Ondasun higiezinen gaineko zerga

Arabako Foru Aldundiak 2020ko Laudioko landalur eta hirilur Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren errolda onartu du. Zergen ordainketa epea, borondatezko aldian, 2020ko urriaren 16tik abenduaren 16ra arte izango da, biak barne. Helbideratuta dauden erreziboak 2020ko azaroaren 16an kobratuko dira.

## Impuesto sobre bienes e inmuebles

La Diputación Foral de Álava aprueba el padrón contributivo sobre el Impuesto Municipal de Bienes Inmuebles de naturaleza rústica y urbana de 2020. El plazo recaudatorio, en periodo voluntario, es del 16 de octubre al 16 de diciembre, ambos inclusive. Los recibos domiciliados se cobran el 16 de noviembre de 2020.

Tasa hauen ordainketa helbideratuta ez duten pertsonentzat, Kutxabank, Laboral Kutxa eta Caja Rural de Navarrako sukurtsalen bidez egingo da diru-bilketa, banku-erakunde horiek irekita dauden ordutegiaren barruan. Ordainagiria galdu edo jaso ezean, errezibuaren ale bikoiztua eska daiteke Udalaren Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ).

**La recaudación, en caso de no tener domiciliado el pago de dichas tasas, se hará a través de las sucursales de Kutxabank, Laboral Kutxa y Caja Rural de Navarra, durante su horario de apertura. En caso de extravío o no recepción del recibo, se emitirá un ejemplar duplicado en el Servicio de Atención al Ciudadano (SAC) del Ayuntamiento.**

# HEZKUNTZA/ EDUCACIÓN

## Udalak karpa bat kokatu du Latiorro ikastetxe publikoan

Laudioko udalak amaitu berri ditu Latiorrro Ikastetxe Publikoan karpa handi bat jartzeko mantentze-lanak, ikasleei espazio estaliak emateko eskola-ordutegiaren barruan ezarritako atsedenaldietan edo jolasaldietan helburu hartuta.

Horrela, Udalak hezkuntza-erakundearen zuzendaritzak egindako eskaera bati erantzuten dio; izan ere, hezkuntza-erakundeak horrelako espazio bat eskatu zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak diseinatutako protokoloak bete ahal izateko, COVID-19aren pandemiari aurre egin ahal izateko. Udazken eta negu garaian beharrezkoa den baliabidea da, haizea eta euria ohikoak baitira..

## El Ayuntamiento instala una carpa en el colegio público Latiorro

El consistorio laudioarra finaliza la instalación de una carpa en el Colegio Público Latiorrro, con el objetivo de dotar de espacios cubiertos a los alumnos y alumnas durante los periodos de descanso o recreo establecidos dentro del horario escolar.

De este modo, el Ayuntamiento responde a una petición planteada por la dirección de la institución educativa que había solicitado un espacio de estas características para poder cumplir con los protocolos, diseñados por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco, que permiten hacer frente a la pandemia del COVID-19. Se trata de un recurso necesario en la época de otoño e invierno donde el viento y la lluvia son habituales.




# GIZARTEA/ SOCIEDAD

## Noiz egin behar dut ziklomotorraren IATa?

Laudion Ibilgailuen, Ziklomotorren, Azterketa Teknikoa 2020ko azaroaren 19an egitea aurreikusita dago. Aurreko kanpainan (2019) egin zen leku berean izango da. 28,91 euro ordaindu behar dazenbateko zehatzarekin joatea eskatzen da-.

## ¿Cuándo tengo que pasar la ITV de mi ciclomotor?

Está previsto que la Inspección Técnica de Vehículos, Ciclomotores, en Llodio se realice el 19 de noviembre de 2020. El lugar es el mismo que el de la campaña anterior (2019). El precio será de 28,91 euros –se ruega acudir con el importe exacto-.

## ODOLA EMATEKO KANPAINA
### CAMPAÑA PARA DONACIÓN DE SANGRE

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ASTEAZKENA 18** MIÉRCOLES | **ARDANTZAZAR** | **OHATILAK** CAMILLAS | **16:30-20:00** |
| **OSTEGUNA19** JUEVES | **ARETA** | **OHATILAK** CAMILLAS | **16:45-20:00** |
| **ASTEAZKENA 25** MIÉRCOLES | **ARDANTZAZAR** | **OHATILAK** CAMILLAS | **16:30-20:00** |



## Community Manager: online ikastaroa

Laudio Hazi-k Community Manager online eta doako ikastaroa antolatu du, Laudioko negozioetarako arlo horretan dauden aukerak aztertzeko. Ikastaroak 6 prestakuntza-saio izango ditu, azaroaren 24an hasiko direnak eta abenduaren 3an amaituko direnak. Asteartetik ostegunera, 16:00etatik 19:20ra.

Izena emateko ezinbestekoa da mezu bat idaltzea garapenagentzia@laudio.eus helbide elektronikora izena, harremanetarako telefonoa, helbide elektronikoa eta parte hartu nahi duen pertsona zein enpresetakoa den adieraziz. Gogoan izan: plaza mugatuak direla, 15 pertsonentzat.

**Informazio gehiago:**
**94 40 34 980**
**garapenagentzia@laudio.eus**

## Curso online: Community Manager

Desde Laudio Hazi se va a organizar un nuevo curso online y gratuito sobre Community Manager para analizar en detalle las posibilidades en este campo en los negocios del municipio laudioarra. El curso consta de 6 sesiones formativas que comienzan el 24 de noviembre y terminan el 3 de diciembre. En horario de martes a jueves, de 16:00 horas a 19:20 horas.

Para inscribirse es necesario enviar un correo a garapenagentzia@laudio.eus indicando nombre, teléfono de contacto, email y empresa a la que pertenece la persona interesada. A tener en cuenta: plazas limitadas para 15 personas.

Más información:
**94 40 34 980**
**garapenagentzia@laudio.eus**

# **INGURUMENA/** MEDIO AMBIENTE



## Etxe konpostajea sustatzeko jarduerak

## Actividades para impulsar el compostaje doméstico

Parte hartu nahi duzu Aiarako Kuadrillak konpostajeari eta gaikako bilketari buruz antolatzen dituen webinarretan? *¿Quieres participar en los webinar sobre compostaje y recogida selectiva organizados por la Cuadrilla de Ayala?*

- **Azaroak 20 noviembre** - 18:00 - Konpostgailu bat etxean nola egin eta lortutako konposta nola erabili - La creación de un compostador casero y usos del compost obtenido
- **Azaroak 27 noviembre** - 18:00 - Konpostgailu bat etxean nola egin eta lortutako konposta nola erabili - La creación de un compostador casero y usos del compost obtenido
- Horrez gain, "Hondakinak eta gaikako bilketa" euskarazko hirugarren dibulgazio-saio bat emango da **azaroaren 27an** zuzenean eskoletan // Además se emitirá una tercera "Los residuos y la recogida seletiva" en euskara y en directo en las escuelas el día **27 de noviembre**

**Izen emateak:** azaroaren 18a baino lehen, aiaraldea.konposta@gmail.com helbidean.
**Inscripciones:** antes del 18 de noviembre en aiaraldea.konposta@gmail.com.





## EKOGUNEAK

Laudion 7 gune daude pilak, CDak, tinta-kartutxoak, bonbillak, tresna elektriko txikiak eta bestelakoak biltzeko.

Laudio ya cuenta con 7 minipuntos destinados a la recogida de pilas, CDs, cartuchos de tinta, bombillas, pequeños aparatos eléctri-

- **Lamuza Plaza**
- **Untzueta Plaza**
- **Ugarte Plaza**
- **Areta 37**
- **Arantzar Kalea**
- **Zumalakarregi 59**
- **Tren geltokia - Estación de tren**







## Izan zaitez eko-arduratsua

Laudiok ere ReActívate+ ekimenarekin bat egin nahi du. Ingurumen-jasangarritasunaren aldeko herritarren partehartzea sustatzeko ekimenarekin, hain zuzen ere. Unibertsitateei, ikastetxeei eta familiei zuzendutako programak ditu. Izena eman nahi baduzue doan egin dezakezue bere webgunean: **www.reactivatemas.eus**

## Súmate a la ciudadanía eco-responsable

Laudio también quiere sumarse a la iniciativa ReActívate+, un programa que pretende implicar a la ciudadanía para cambiar sus hábitos de vida y conseguir así avanzar en la sostenibilidad de Euskadi. Está dirigido a hogares, centros escolares y comunidad universitaria. Si queréis apuntaros, podéis hacerlo en: **www.reactivatemas.eus**

# KULTURA/ CULTURA



## Laudiok ez du Olentzeroren edo Errege Magoen kabalgatarik

Asteak igarota doaz, eta gertatzen diren edo antolatu behar diren gertaera edo mugarri bereziek ezohiko erabaki edo neurriak behar dituzte COVID-19k eragindako pandemiaren ondorioz. Horrela, orain Gabonetako ekitaldi handien txanda iritsi da. Ez da Olentzeroren, Maridomingiren eta Errege Magoen desfilerik izango, ezta ikazkina edo morroia ere. Gutxienez, ez beste urte batzuetan bezala.

Bitartean, toki-administrazioaren erronka da orain beste modu alternativo bat aurkitzea, pilaketarik gabe gozatzeko aukera izan dezagun. Erabaki hori bat dator da orain arte hartu diren guztiekin, esaterako, 2020ko sanrokeak bertan behera uztea.

## Laudio no tendrá Cabalgata de Olentzero ni de Reyes Magos

Las semanas van pasado y los acontecimientos o hitos especiales que van teniendo lugar o se tienen que organizar requieren de decisiones o medidas excepcionales como consecuencia de la pandemia provocada por la COVID-19. De este modo, no habrá ni desfile del Olentzero y Maridomingi ni de los Reyes Magos, tampoco vendrá el carbonero o el paje real. Al menos, no como otros años.

Por el momento se está buscando un modo alternativo para disfrutar sin las aglomeraciones que conllevan los desfiles y cabalgatas. Esta decisión sigue la línea con todas las que se han tomado hasta la fecha como la suspensión, por ejemplo, de los sanrokes 2020.

## LAUDIO TOP ZINEMA

Osasun egoera berezia dela-eta, Laudio TOP ZINEMA atzeratu egingo da, egoerak ahalbidetu arte. Edozein kexa edota iradokizun izatekotan zerbitzuari buruz, bidali diezagukezue laudiotopzinema@laudio.eus helbidera.

Dada la especial situación sanitaria, Laudio TOP ZINEMA queda aplazado sin fecha, hasta que las condiciones lo permitan. Para cualquier queja o sugerencia acerca del servicio, podéis mandarnos un correo electrónico a la dirección de:

laudiotopzinema@laudio.eus.




# KIROLA/ DEPORTE

## Hockey Prestakuntza Plana Laudion

Arabako Hockey Federazioak teknikariak eta jokalariak prestatzeko programa pilotu bat jarri du abian Diego Arana Antoñanzasekin batera, Espainiako selekzioko nazioarteko jokalari absolutua dena. Helburua herriko entrenatzaile eta jokalarien prestakuntza hobetzea izango da, Aiaraldeko talde eta klub bakoitzaren prestakuntzan aurrerapen pausoak eman daitezen.

Egungo egoera dela eta, programa Arabako Hockey Federazioak gauzatu eta ebaluatuko du, diru-iturri berriak aurki ditzaten 2021ean aurre eraman ahal izateko.

Era berean, gogoratzen dugu Laudioko Hockey Eskola martxan dagoela Gardeako Udal Hockey zelaian. Harremanetarako: 657778239 telefonoan edo presidente@arabahockey.org helbidean.

## Plan de Formación de Hockey en Laudio

La Federación Alavesa de Hockey pone en marcha un programa piloto de formación de técnicos y jugadores/as junto con Diego Arana Antoñanzas, jugador internacional absoluto de la Selección Española. El objetivo será mejorar la formación de la/os entrenadoras/es y jugadoras/es locales, buscando un salto cualitativo en la preparación de cada uno de los equipos y clubes de Aiaraldea.

Debido a la actual situación, este programa será llevado a cabo y evaluado por la Federación Alavesa de Hockey, que deberá encontrar nuevas fuentes de ingresos para llevarlo a cabo en 2021.

Asimismo, se recuerda que Laudioko Hockey Eskola ya está en marcha en el Campo Municipal de Hockey de Gardea. Para contactar: a través del teléfono 657778239 o email presidente@arabahockey.org.